



Plazaolako Partzuergo Turistikoa 2010-08-10

Lekunberriko Antzinako Azokara milaka pertsona gerturatu ziren

Urtero bezala, Lekunberritarrek euren jantzirik onenak jantzi zituzten, pasa den igandean, antzinako merkatuak friaz goatzera herrira gerturatu ziren bisitari guztiei harrera egiteko.

Lekunberriko biztanleak antzinako garaietako pertsonai bihurtu ziren egun horretan eta herria heroi historiko, errege, epaile eta printzesaz bete zuten bertaratu ziren 2.000 pertsona baino gehiago ren aurrean.

Lekunberriko Udalak eta Plazaolako Partzuergo Turistikoak, Napar Bideak eta Nafarroako Artisau- Elikagaien Elkartek antolatutako feriak Lekunberriko alde zaharreko kaleak bete zituen, bertako salmenta-postuetaz goatzera etorritako bisitariez. Horietan, milaka artisau-produktu desberdin aurkitzen ziren: eztia, gazta, jostailuak, saskiak.... Guzti horretaz gain, bisitariak Lekunberriko antzinako ordainlekuari buruzko antzerkia ikusi, beste garai bateko lanbideak behatu, hegazti harrapakarien ikuskizunaz gozatu edo txikientzako artzaintza eta buztingintza tailerretaz disfrutatu ahal izan zuten.

Aparteko giro berezi horrekin eta hurrengo urtera arte antzinako azoka itxi zen, urtez urte geroz eta jende gehiago erakartzen duen feria.